

ELAren proposamenak

- 1 » Europako gomendioei jarraituta Euskal Herrirako gutxieneko soldata duina ezartzea, gutxienik bataz-besteko soldaten %60koa (egun 1.381 euroko gutxieneko soldata litzateke hau).
- 2 » Lanaldi partzialek suposatzen duten pobrezia eragozteko asteko 20 orduko gutxieneko kontratua ezartzea eta lanaldi partzialak behin-betiko osatzeko betebeharra ezartzea enpresetan orduak libre geratzen direnean edo lan-kargak handitzen direnean.
- 3 » Azpikontratutako langileek subrogazio eskubidea bermatuta izatea, hau da, enpresa nagusiak azpikontrata aldatzen duenean langileek enpresa berrian lan egiteko eskubidea ziurtatuta izatea.
- 4 » Iruzurrian dauden behin-behinekoren kaleratzeak ematen direnean deusezak izango direla ezartzea.
- 5 » Administrazioek iruzur bidez kontratatutako 70.000 behin-behineko langileak kontsolidatu ditzatela.
- 6 » Kontratazioan iruzurra erasotzeko eta langileen lan osasun egokia bermatzeko ikuskari kopurua Europarekin parekatzea, horrek Euskal Herriko ikuskari kopurua bikoiztea ekarriko luke.

Hau dena eskatuko dugu, baina ez gara patronal zein gobernuen baiezkoren zain egongo. ELAk ordezkariak duen lantoki guztietan, lantoki horietan bizitzen diren prekaritate egoera zehatzei aurre egiteko plangintzak martxan jarriko ditugu.

ELAren baliabide guztiak prekaritateari aurre egiteko ezarriko ditugu!

HEMEN 541.600 LANPOSTU PREKARIO BAINO GEHIAGO DAUDE

NAFARROAN
134.300

EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOAN
407.300

**Lan prekario
gehiagorik ez!**

Apirilak 6 - Bilbo
10:30ean La Casillan



Lan prekario gehiagorik ez!

Aktibatu Lortu Zaindu

Hego Euskal Herrian 541.600 lanpostu prekario baino gehiago daude. Datu izugarria da. Hau da gure ustezko oasiaren errealitate gordina!

Prekaritatea bilakatzen ari da lan munduaren ezaugarri nagusia. Orain gutxi lan-erreforma bat onartu dute Madrilan, baina ez dute neurri eraginkorrik ezarri lan munduan hedatzen ari diren prekaritate egoerei aurre egiteko. ELAk Euskal Herrirako alternatiba du eta, bereziki, euskal langileentzako proposamena du.

"Soldaten eta behin-behineko lanpostuen datuak solik aztertuta, Hego Euskal Herrian 541.600 lanpostu prekario baino gehiago daude (407.300 EAEn eta 134.300 Nafarroan)".

Zer da lan prekaritatea?

Pobrezia prekaritatea da. Hilabete bukaeran bitzta duina izateko hainako dirusarrerak bermatuko dituen soldata. ELAk langa hori urteko 18.200 eurotan kokatzen du.

Egonkortasun falta prekaritatea da. Kontratu mugagabe bat ez izateak izugarri zailtzen du bizi-proiektu bat eraikitzea, egonkortasun falta horretan daude kontraturik ez duten langileak, autonomo faltsuak, bekadunak, praktiketako langileak edo behin-behineko kontratuak dutenak, esaterako.

Gaixotzen duten lanek prekaritatea dakarte. Lan egiteak gaixotzea eta hiltzea eragin dezake, produktu arriskutsuekin lan egiten delako, erorketak eta makinaren harrapaketak sufritu daitezkeelako, lanaren antokakuntza desegokiak arazo fisiko zein mentalak sortzen dituelako edo jazarpen egoerak pairatzen direlako, eta hauek guztiak lan munduan hedatzen ari dira.

Azken finean, prekaritatea langileak mugan izatea da, langileek duten gutxi hori galduko balute dena galduko luketelako. Zentzu

horretan, diziplinarako tresna da enpresentzat, egoera horietan dauden langileek beldurraren eraginez antolatzeari edo mobilizatzeari uko egingo dietela uste baitute enpresek.

- » Soldatapekoen %25,1ak behin-behineko kontratua du Hego Euskal Herrian (EB-27n %13,4ak batez beste). Administrazioetan soilik 70.000 behin-behineko langile baino gehiago daude.
- » Soldatapekoen %16,6ak lanaldi partzialeko kontratua du Hego Euskal Herrian.

Horretaz gain, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren arabera urtea hasi zenetik egin diren hasierako kontratuen %95,2a behin-behinekoa da eta %34,1a lanaldi partzialekoa da.

»» "Ez dut inoiz 3 hilabete baino gehiagoko kontraturik izan"

Eta, azkenik, azken urteetako lan-heriotza kopurua aztertzea besterik ez dugu lan egiteak bizitzarako ze arrisku dakarren ikusteko. Kontuan izan behar dugu lan-istripuan hildako langile bakoitzeko 25 bat hiltzen direla gaixotasun profesionalen ondorioz, hau da, azken hamar urteetan Hego Euskal Herrian 17.000 bat langile hil dira lanaren ondorioz. Eta horri gehitu egin beharko genieke lanean COVID-19az kutsatu eta hil egin diren langileak edo beren senideak. Osasun krisiak are argiago erakutsi digu bizitzak arriskuan jartzea sistema hau martxan jartzearengatik pagatu eta onartu beharreko prezioa dela gobernu eta patronalentzat.

Zure lantokian aipatutako prekaritate egoeraren bat hedatuta badago jarri harremanetan ELAekin, etorri gure egoitzetara.

PREKARIOETAN PREKARIOENAK: Gazteak, migrariak eta emakumeak.

Prekaritateak langile guztiei eragiten die, baina badaude bereziki kolpatuak diren kolektiboak: gazteak, emakumeak eta migratuak. Datu batzuk ematearren:

- » Gazteen langabezia-tasa %35ekoa da.
- » Soldatapeko emakume langileek gizonek baino %33 gutxiago kobratzen dute.
- » Langile migratuek autoktonoen erdia kobratzen dute bataz-beste.
- » 19 eta 25 urte arteko gazteen batez bestekoak gutxieneko soldata baino 181 euro gutxiago irabazten du.
- » Aniztasun funtzionala duten langileen langabezi tasa beste langileena baino 10 puntu altuagoa da, okupazio tasa 40 puntu txikiagoa.

»» "Lanaldi partziala dut eta nire soldata ez da 800 eurotara iristen"

ELA: Prekaritateari aurre egiteko tresna guztiak dituen sindikatua!

- » Grebei aurre egiteko Borroka Kutxa: ELAn afiliatutako langileek greba deitzean hilean 1.243,59 euro jasotzeko eskubidea dute (afiliazio maila handiko enpresetan 1.430,13 euro).
- » ELAren zerbitzu juridikoetan 100 pertsona ari dira lanean, besteak beste prekaritateari epaitegietan ere aurre egiteko.
- » ELAren arduradunak eskualde guztietan daude, edozein arazori aurre egin nahi badiozu hurbilen duzun sindikatuaren egoitzara joan zaitezke.

Lan erreformaren ondoren prekaritatea amaituko da? Ez!

Lan erreformak prekaritate molde batzuei atea itxi eta beste batzuei irekiko dizkio. Orain arte obra kontratua izan da behin-behinekotasunaren arrazoi nagusia, hemendik aurrera "finko ez-jarrai" kontratua izango da. Finko ez-jarrai kontratua idatzi duten moduan enpresen boterea langileekiko izugarria izango da, etxean izango dituzte langileak dei baten zain eta enpresak nahi duenean deituko ditu lan egitera, eta deitzen ez dituen oso zail izango du langileak ezer eskatzea. Gobernuarentzat kontratu honek abantaila izugarria izango du, estatistiketan ez da behin-behineko kontratu gisa azalduko. Gure egin beharra da presioaren bitartez kontratu mota hau lantokietatik desagertaraztea!

Horrez gain, legeak esaten duena esaten duela, enpresari askok gezurra eta iruzurra erabiltzen dute behin-behineko kontratuak inposatzeko. Ikuskaritzak egin beharko luke iruzur horren aurkako lana, baina ez diete baliabiderik ematen horretarako. Ikuskariek egiten ez dutena sindikatuaren laguntzarekin egin beharko dugu!

